



LOS CRISTIANOS Y LA PAZ

Las contradicciones de un Congreso

P. Agirrebeltzategi

El pacifismo "revolucionario del Congreso ha tropezado al referirse a la paz de Euskal Herria y de otros pueblos "negados" de Europa... huyendo a Nicaragua y Centroamérica; el pacifismo "reformista", sin embargo, ha olvidado la lucha de liberación de esos mismos pueblos refugiándose en lo que simboliza Ginebra...

He asistido al -participando en el Congreso "Cristianos y Paz", celebrado en Madrid los días 19-25 de setiembre último, convocado por la Asociación de Teólogos "Juan XXIII", y con el apoyo, entre otros, de esta revista Herria 2.000 Eliza.

Desde el primero que se celebró he desde dos años tenía interés en participar en estas reuniones; este año lo he conseguido, quitándome una semana de las vacaciones. El congreso no me ha de-

fraudado; y menos, desalentado; pero tampoco me ha entusiasmado.

No voy a alinearme con los que desde el exterior lo han criticado con antipatía y acritud; mi crítica de este Congreso parte desde una profunda simpatía e incluso afinidad. He salido con la convicción de que es un acontecimiento importante este encuentro anual de cristianos de base y de teólogos, para reflexionar juntos desde el compromiso de la liberación de los pobres: clases y pue-

blos. Los lados positivos y los valores del congreso son muchos; no entro aquí a hacer una valoración general.

Aparte de ciertos defectos organizativos -se puede organizar un verdadero congreso de 1.500 personas, sin dividirlo por secciones, etc.?- me interesa entrar en una crítica más interna, más de fondo; quiero apuntar las contradicciones bastante profundas que me ha parecido ver en el Congreso.

Txingarra eta txinpartak

Jasoak ditut aurreko bi kongresuen eta aurtengoaren aurkezpen-laburpenak, El País-ek egindakoak. Aurrena, -Teología y Pobreza-, honela laburbildu zuen: "2.000 cristianos denuncian el olvido de los pobres en la Iglesia" (1981, IX, 27); bigarrena -Esperanza de los pobres, Esperanza cristiana- honela aurkeztu zuen: "1.500 participantes en Madrid en el II Congreso de Teología" (1982, IX, 7); aurtengoa, berriz, honetara aldarrikatu du: "60 teólogos comienzan su tercer congreso al margen de la jerarquía eclesiástica" (1983, IX, 20).

Ez dago oso argia izan beharrik, egunkariaren -albistariaren?- begi-aldaketaz ohartzeko. Baina ez da hori bakarrik. Kongresuaren egunetan Espainiako hiriburuko prentsa, bereziki eskuinekoa (Diario 16, ABC, El Alcázar) asaldaturik ibili da, "60 teologoen" kongresua zela eta. Denetarikoa asmatu eta bota ahal izan dituzte, batez ere Tomas Borge-ren hitzaldia edota "La paz en Euskadi" mahainguruko Eva Forest zirela tarteko: Bakearen teologoak Eliz hierarkiarekin etenean jartzetik, "bolboraren teologoak" deitzeraino. Azkenekoz, nik dakidanez, Deia hurbildu zaie; J.R. Scheifler-ek salatzen ditu bertan kongresuko teologoak: "fervorosos partidarios del sandinismo", "teólogos pacifistas que aplauden el pacifismo guerrero" de Nicaragua, "país militarista".

Kongresua ez da izan, ordea, 60 teologo "pazifista" "bolborazaleena", eta bai 1.500 kristaurena, bakeari buruz gogarte leiala egitera bildu direnena. Hori askoz larriagoa (!) da.

Dena dela, gauza bat dago nonbait argi: Bakearen deiak gerraren oihartzuna dekarkielako askori belarrietara.

Txingarraren gisakoa da bakea. Inork eragiten ez badio, errautsak estaltzen du, eta poliki poliki itzaltzen. Horrelaxe nahi lukete batzuk: bake hila! Baina bake hila gerra hotza besterik ez da gehienetan. Ba dira, ordea, gerra hotza baino bake beroa nahiago dutenak: bake bizia! Horregatik eragiten diote txingarrari, etengabe pizturik eta beroa emanez iraun dezan. Baina bakearen txingarrari eragin orduko, gerraren txinpartak entzun ohi dituzte batzuk, eta gerraren garra ikusi.

Horrelako zerbait gertatu da, kongresu hori zela eta: Txingarrari eragin zaionean, txinpartak sortu ditu hainbat lekutan. Izan ere, batzuzentzat -kongresuarentzat?- egin beharrek zerbait da bakea: Justicia! Beste batzuzentzat, berriz, zaintzeko zerbait da bakea: segurtasuna eta ordena!

Bakearen kongresuak ez dio zenbait laguni bakerik eman.

Bakearen mila aurpegiak

Baina Kongresuaren barruan bertan hainbat aurpegi agertu ditu bakeak.

Hitzaldiak izan ziren kongresuaren ardatzak, nere ustez: Bakearen alderdi politikoa, militarra, ekonomikoa, kulturazkoa, pedagogikoa, etikoa, eta batez ere teologikoa aztertu ziren horietan. Hitzaldi gehienak onak, nere eritziz. Horien inguruan zenbait mahainguru: "Los movimientos pacifistas, hoy", "La paz en Euskadi", "Defensa nuclear en Europa y OTAN", "Contribución de la Iglesia a la paz".

Hitzaldietan, mahainguruetan eta entzuleen eritzietan bakearen ikuskera

ezberdin asko nabari dut nik, eta bakea lortzeko beste hainbat bide. Hona hemen horietako batzuz:

a) Gerrarik eza da bakea. Sarritan agertu zen kongresuan kontzeptu hori. Baina azken munduzabaleko gerratik honera beste 100 gerratik gora gertatu dira. Horiek uxatzeko, bakea "gorde", "defenditu" egin behar omen da: segurtasunarekin eta defentsarekin nahasten da orduan bakea. Hori zaintzeko bidean arazoa zera da: armadarik bai ala armadarik ez, harmak gutxitu ala harmak ugaritu, disuasioa ala distentsioa, indarren oreka.

b) Justizia da bakea: hau da, gizarteko zuzengabekeriak gaintzea, klaseen artekoak eta Herrien artekoak. Zapaldunak beren egoeratik ateratzeko iraultza harmatua beharrezkoa baldin bada, berriz, burruka harmatua eta gerilla bakebideak dira, kongresuan mintzatu diren hainbaten eritziz. Jarkiera militarra bakea egiteko bideetako bat da orduan; beste batzuren artean. Bakoitzean erabaki behar zein den egokiena.

c) Ez-bortxa da bakea. Bakearen helburuak eta helbideak bategiten dute hemen, esbortxan, hau norberaren barneko jarrera tinkoa, oinarriko filosofia, jarkierarako eta zuzengabekeriak egoerak aldatzeko metodoa denez. Kongresuko egunetan oso bertako eta explizito izan zen behin eta berriro ezbortxaren ideia eta ideala: batzutan agian baieztapen absolutu bezala, edota bakearen kontzeptu eksklusibo bezala.

d) Bizitza da bakea: hau da, gizonaren gizartea, lagun mailan, gizarte eta kultura mailan. Heriotzaren aurka bizitza baieztatzen du bakeak; ez, ordea, bizitza biologiko hutsa. Bizi-osotasuna, bizitzaren gozamina, ongizatea esan

nahi du bakeak. Helburu hori lotzeko bideak ezberdinak izan daitezke: batzutan iraultza harmatua izango da, bitzta eragozten dutenen botereen kontrakoa; bestetan, harmen eta militarismoaren aurkako erresistentzia.

e) Barne-baretasuna da bakea: nork bere barruan dituen tirabirak eta inorekiko oldarkortasuna gainditzea, alegia.

Kongresuko eritzi-aniztasuna eta aberastasuna: esango du baten-batek. Daitekeena. Baina sintesi-lanak hutsegín du Kongresuan: sakabanaturik gelditu dira bakearen kontzeptu horiek, nere ustez. Areago: susmoa dut, gainditu gabeko kontradikziopean gelditu direla bakearen kontzeptu ezberdinok hainbat parte-hartzaileen buruetan eta txaloetan.

Liluraren eta bildurraren artean

Bi hiriburu eduki ditu Madrilgo Kongresuak begien aurre aurrean hasieratik bukaeraraino. Baina ez biak batera, batean bata, eta bestean bestea baizik.

Managua eta Genève izan ziren hiri horiek. Managua, Nicaragua-ko hiriburu, Somozaren tiraniaren kontrako iraultza harmatuaren irebazlea, AEBren atzapar inperialisten aurkako jarkieraren lekunea, eta Ertamerika nahiz Hegoamerikako Herri menperatu eta zurgatu guztien askapen-esperantzaren sinboloa. Genève, Suitzako hiri handia, Pershing 2 eta SS-20 izeneko misil nuklearrei buruzko burruka dialektiko ustelaren testigua, AEBen eta ESSBren gailentasun militarista harroaren erakustokia, eta Europako pazifista guztien gerra-etsipenaren sinbolo "nuklearra" eta negarlekua.

Nicaraguako iraultzaren lilurak hartura eduki du, batetik, Kongresua; Europako gerraren beldurrak hartuta, bestetik. Bi zelai horietan ibili da: batetik bestera. Zelai batean, Hegoamerika eta Ertamerikako askapen-teologia aldarrikatu du, iraultza harmatuak txalotuz eta iraultzaren defentsarako armada herritarak zurikatuz; iraultza horretako kristauen eskuhartzea goraiatu du. Beste zelaia, erreforma-teologiari heldu dio, mugimendu eta manifestazio pazifistak eta burruka antimilitarista txalotu ditu, Estatuaren desnuclearizazioa eta Elizaren desmilitarizazioa eskatu ditu.

Bakearen bi teologia erabili dituela uste dut Kongresuak: bata iraultzailea, bestea erreformista. Bi analisi eta bi teologia. Bientzat izan dira txaloak, oihuak, goraipeak, eskabideak. Biek egin dute topo Kongresuan; baina ez dut uste elkartu direnik. Eskizofrenia modukoa nabari izan dut Kongresuan.

Bakearen analisi eta teologia iraultzaileak Nicaraguara eta Amerikara begi-



ra egin ditu; Europako Herrietara eta Espainiara begira, berriz, pazifismoaren teologia erreformazalean gelditu da. Horrexegatik gogarte teorikoan, txalotan, oihutan, goraipeetan eta eskabideetan gelditu da Kongresua. Liluraren eta bildurraren artean, ez du asmatu teologia ekintzailearen eta ekintza teologikoaren zelai berea lantzen; horretarako bake iraultzailearen analisi eta teologia hemendik bertatik eta honerako bertarako egin behar dira: Europako eta Espainiako Herrietatik eta Herri horiei begira.

Bi zelaitan ibili da Kongresua; baina bere zelai teologikoa goldatu beharra du.

Kongresuaren oztopariak: Ez-bortxia; Euskal Herria

Bere zelaian sartu da, bai, Kongresua; beldurrez, ordea. Eta oztopariak aurkitu ditu; behaztopatu egin da. Eta, ahal izan duelarik, beste zealietatik ibili da: batetik bestera.

Hauek izan dira bere zelaian aurkitu dituen oztopariak -harkaitzak? -: ez-bortxiako burruka, bakearen aldekoa; eta Euskal Herriaren burruka, bere askapenaren aldekoa. Bi arazook eta bi jakobideok beren lekua eduki dute Kongresuan; baina ez dut uste Kongresuko hainbat legunek bi burrukok ulertu-areago, onartu- dituenik.

Ezbortxazko jakabidearen eta burrukaren aldeko talde eta lagun multzo bat behintzat ba zegoen Kongresuan. Beren mahaingurua ere izan zuten. Eta behin eta berriro agertu ziren hizlari beren oharrak eta beren galderak jartzera. Agian behin baino gehiagotan segurtasun eta oldartasun handiegirekin. Iraultza harmatuaren eta pazifismo erreformistaren artean zebilen Kongresuak ez zuen, gehienbat behintzat, ez-bortxazaleen eritzi eta jarrera -iraultzaile?-beretzen jakin.

Azkenerako mindura moduko bat sortu zen horien eta Kongresuko hainbat lagun artean. Azken egunean

ezbortxakoek beren arrenkura agertu zuten denen aurrean, hainbaten aldetik nabari izan zuten ulerkortasun ezagatik, beraien aldetik barkapena ezkatzen zuten bitartean. Orduan eskaini zitzaizkien txaloeak ez dut uste funtsezko tirabira eta urruntasuna estali zituenik. Nabarmenagotu egin zituzten beharba-da.

Bigarren oztoparria: Euskal Herriaren burruka.

Erreformismo pazifistaren eta erreboluzionarismo harmatuaren arteko ambiguitasunean, konformismo erre-akzionarioa sumatu nuen Kongresuan, Espainiako eta Europako Herrien askatasun nazional eta sozialen aldeko burrukak aipatzean.

Mahainguru oso bat egin zen Kongresuan, "La paz en Euskadi" gaitzat zuena; beste mahainguru batetan Setien apezpikua mintzatu zen, "La aportación de la Iglesia a la paz en Euskal Herria" gaiari buruz. Ez daukat hemen horien laburpenik egin beharrik; argitaratuko dira laister, uste dudanez. Nere eritzia ematea ere alferrikakoa dela uste dut. Gauza bat agertu -salatu?- behar dut, ordea: bi mahainguruetan jaulkitako zenbait ideia eta eritziren aurrean nabari izan ziren erreakzio minberak hainbat entzuleren artean; gure Herriaren askapen nazional eta sozialaren aldeko edonolako burruka ulerkaitza zaien erreakzioa nonbait.


Ulerkaitzasun horretxan sustraia salatu zen, hain zuzen ere, birritan mahainguruo tan: hots, gure Herriari, beronen egoerari eta burrukari buruzko informazio okerra eta bihurria -edota informaziorik eza-, komunikabide estalen aldetik, bai eta hainbat komunika-bide pribatu eta indartsuren aldetik. Espainiako Herriek eta herritarek, bai eta kristau ezkertiarrek, komunikabide horien informazio monopolizatunik edan behar badute, nekez uxatuko dugu Euskal Herriaren eta beronen burrukaren irudi bihurritu eta ulerkaitza. Horretaz behintzat jabetuko al zen Kongresua! Alde horretatik, oso egokiak izan ziren E. Forest-en eta J.M Setienen salakuntzak.

Bakearen aldeko Kongresu irekian, ez zuen mingarria gertatu behar euskal burrukaren azalpenak, berorren alderdi harmatu eta guzti. Egoera da mingarria guztiontzat; baina hori azaltzeak ez zuen minberatasunik suspertu behar.

Nicaraguako eta Ertamerikako burruka harmatuak askatzaile eta iraultzailetzat txalotzen ziren bitartean, Europakoak haintzakotzat ez hartzeak -edota, besterik gabe, denak terrorismo-tzat gaitzes teak- ez du batere lagunduko bakearen teologia eta ekintza aurrera eramaten; gutxiago oraindik bake iraultzailea egiten. G. Casalis-ek agertu zuen Eurpoatik bakeari buruz egindako gogartea. Bere orokorrean ono izanik, txudituta utzi ninduen Europako Herri Estaturik gabekoen identitate -eskubudeak eta askapen- burruka ez aipatzeak.



IBARRA



IBARRA

